

060

DOKUMENTUAK

ETXEZ ETXE SINDIKALISMO FEMINISTA ZAINTZEN




MANU
ROBLES
ARANGIZ
FUNDAZIOA

ETXEZ ETXE SINDIKALISMO FEMINISTA ZAINTZEN

Gipuzkoako etxez etxeko laguntza zerbitzuko
langileen antolaketa, borroka eta lorpenak

0. Sarrera	3
1. Hautu baten emaitza: sindikalismo feminista	4
2. Soldata arrakala eta kontratu partzialak	5
3. Gipuzkoa: grebetatik hitzarmenetara	6
4. Antolatzearen eta mobilizatzearen garrantzia	8
5. Asko dago egiteko	11
6. Ondorioak	12
Eranskina. ELAk ordezkari-tza duen eramuetan urteotan lortutako akordioak, une horretan zeuden enpresekin	13



Dokumentuak 60

2026ko otsaila

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

0. SARRERA

Argitalpen honek jasotzen ditu Aintzane Orbegozok, ELAren Gipuzkoako zaintza lanetarako koordinatzaileak, 2024ko azaroaren 29an EHUKo Leioako campusean egindako *Lana eta sindikalismoa XXI. mendean* kongresuko “Feminismoa eta zaintza lanak” mahainguruan eta 2015eko otsailaren 18an Baionan Jon Palaisen “Borroka guztien ama” liburuaren aurkezpenean egindako hitzaldietan esandakoak.

Bi hitzaldietan, modu desberdinetan bada ere, jardun zuen etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileen antolakuntza lan feministaz eta lortzen ari diren garaipen garrantzitsuen gako nagusiez. Era berean, azpimarratu zuen indar harremanean hobetzeko eta jendea borrokara erakartzeko bortizkeriarik gabeko estrategiaren eraginkortasuna.

Izan ere, ELAk urteak daramatza sindikalismoaren antolakuntza tresnak borroka feministarekin uztartzeko ahaleginean. Prekarizatutako eta feminizaturiko esparruetara gerturatu, antolakuntza sustatu eta borrokaren bidez garaipen esanguratsuak lortzen. Argitalpenetan jasotako hainbat borroka eta garaipen dira horren adibide, hala nola, erresidentziak edo garbitasunean aurrera eramandako borrokak. Gipuzkoako etxez etxeko laguntza zerbitzua ere bada adibide horietako bat, eta horregatik merezi du egindako ibilbidean sakontzea, hautatutako estrategia eta praktika sindikalak aletzea.

1. HAUTU BATEN EMAITZA: SINDIKALISMO FEMINISTA

ELA sindikatuaren hautu bat dago guztiaren oinarrian: sindikalismo feministaren aldeko hautua. Hogeita bost urteotan sindikatuak barne bilakae-ra garrantzitsua egin du hori aurrera eraman ahal izateko.

Alde batetik, emakume gazteak sartu dira ELAko egituran, eta etengabea da genero eta adin erreleboa. Horren emaitza da nazio mailako zein federazioko organoetan dagoen egungo parekidetasuna.

Bestalde, ezinbestekoa da genero ekitaterako garatutako plan estrategikoa. Horri esker, ELAk betaurreko moreekin begiratzen du sindikatuaren egiteko guztia, askotan neutroak diruditen erabaki edo egitekoak zalan-tzan jartzeko. Feminismoa modu transbertsalean lantzea ahalbidetzeko prozesu betean dago sindikatua.

Horrekin batera, langileak prekaritatetik ateratzeko hautua ere egin du sindikatuak. ELAk konpromisoa hartu du prekaritate handiena jasaten duten langileengana gerturatzeko eta baliabideak eskaintzeko, antolatze eta euren lan eta bizi baldintzak hobetzeko. Horretarako, baliabide gehiagorekin hornitu ditu ELAk sektore eta eremu prekarioenak.

Izan ere, sindikatua feminista dela esatearekin ez da aski. Hautuak eta neurriak hartu behar dira hori bermatzeko.

2. SOLDATA ARRAKALA ETA KONTRATU PARTZIALAK

Zehazki, etxez etxeko laguntza zerbitzuari erreparatuta, kontuan izan behar da Bizkaian eta Araban badagoela probintzia mailako hitzarmena. Gipuzkoan eta Nafarroan, ordea, ez. Beraz, Gipuzkoan edo Nafarroan, beste akordiorik ezean, estatu mailako etxez etxeko laguntza zerbitzua-ren lan hitzarmena aplikatu behar zaie langileei.

Hitzarmen horiek oso eskasak dira, estatuan gehiengoa duten sindika-tuek, konfrontaziorik eta grebarik gabe, elkarriketa sozialaren bidez lortutako akordioak direlako.

Langileen arazo nagusienak dira soldata arrakala eta lan kontratu par-tzialak. Soldata arrakala bi zentzutakoa da: batetik, antzeko lana egiten duten azpikontrataturako sektore maskulinizatuekin konparatuta (adibi-dez, kale garbitzaileekin) eta, bestetik, udal langileekin konparatuta.

Gainera, azpikontrataturako etxez etxeko laguntzako langile gehienek ez dute lanaldi osoko kontraturik. Ondorioz, soldata txikiagoa dute, eta osatu nahi badute, enpresek eskaintzen dizkieten ordu osagarriak hartu behar izaten dituzte, erabateko disponibilitatearen eta egutegi malguen truke. Baldintza horietan oso zaila zaie lana eta bizitza uztartu ahal izatea.

3. GIPUZKOA: GREBETATIK HITZARMENETARA

Langileen egoera hobetzeko estrategia pentsatzerakoan, zein bide ote zen egokiena hausnartu zuen ELAk. Aukera bat zen, Bizkaian bezala, Gipuzkoan ere lurralde mailako hitzarmen bat sortzea. Horretarako, baina, ez zegoen borondate politikorik Eudel EAeko udalen elkartean. Gainera, udaleko langileen lan hitzarmena gainbeheran zen, eta pribatizatutako eta feminizatutako eremu batean, oso indar sindikal txikia edukita, oso zaila zen bide hori urratzea. Beraz, urratsak egin ahal izateko, indar korrelazioa irabaztea beharrezkoa zela ondorioztatu zuen sindikatuak. Horregatik, lehenik, eremu txikietan hasi zen lanean sindikatua, prest zeuden langileekin.

Antolatutako lehen langileak Irungoak izan ziren, eta greba luze baten ondorioz, Irungo etxez etxeko laguntzako langileen lehen hitzarmena lortu zen. Soldata nabarmen hobetzea lortu zen, baita lan orduak murriztea eta beste zenbait baldintza erregulatzea ere. Eta garrantzitsuena, erreferentzia bat sortu zuten.

Hortaz, eztabaida hitzarmenaren beharrean kokatu ordez, sindikatuak erreparatu zion langileen indar korrelazioari. Horren arabera lortzen baitira hitzarmena hobetuko duten lan baldintza hobeak.

Irungo garaipena orain 20 bat urte izan zen. Geroztik, eta batez ere zortzi urte hauetan, aurrerapauso nabarmenak eman dira: ELAk ordezkaritza duen hogeita lau udalerrietan lortu dira hitzarmenak, eta beste zenbait herrian prozesu berriak daude martxan dokumentu hau argitaratu den unean.

Hogeita lau hitzarmenetatik hamarretan greba egin dute langileek. Batzuk luzeak izan dira: Pasaiake langileek bi hitzarmenetan 10 hilabetetik gora greba egin dituzte; Arrasatekoek 4 hilabetekoa; Errenteriakoek hila-
betekoa; Beasain eta Andoainen 2 aste...

Beste hitzarmen batzuk lortzeko mobilizazio egun batzuk edo greba aurreabisua sartzea nahikoa izan da, Eskoriatzako kasuan nola. Baina beti ezinbestekoa izan da udalei eta enpresei konfrontaziorako gaitasuna erakustea mobilizazioen bidez. Langileek esperientzia propiotik barneratu dute ez dagoela hitzarmen onik lortzerik greba eta mobilizazio ahalmenik gabe.

Ondorioz, langileak antolatu ahala, herri mailako hitzarmenak lortzen joan da ELA, eta hitzarmen horiek bi edo hiru urtean behin berritzen joan behar dira. Hobekuntzak nabarmenak dira: aipatutako kasu askotan soldatak %20-30 handitu dira, eta kopuru hori soldata txikienentzat oso garrantzitsua da. Lanaldiari dagokionez, asteko 35 orduko langara ekartzea lortu da. Era berean, aipatu bezala, sektorean lanaldi partzial ugari dagoenez, ELAk arreta berezia jarri du jardunaldi minimoak ezartzera-koan, eta lorpen esanguratsuak eskuratu ditu. Gainera, ordu-poltsa edo bestelako mekanismoen bidez aurrerapausoak eman dira ordu banaketa erregulatzeko. Hitzarmena udalerrri txikien zerbitzuaren errealitatera hurbildu du ELAk, eta horri esker, tokian tokiko ezaugarrietara hobeto egokitu da zerbitzua.

Hala ere, lorpenak garrantzitsuak izanagatik ere, egindako bideak ere aparteko balioa du, garrantzitsua izan delako borroka sindikal feminista horiek irabazteko.

4. ANTOLATZEAREN ETA MOBILIZATZEAREN GARRANTZIA

Etkez etxeko laguntza zerbitzuetan garaipenak lortzeko, ezinbestekoak izan dira honako lau pauso hauek:

4.1. Langileak kontaktatu eta asanbladan elkartu

Sektore honetan, zailtasunak daude langileak kontaktatzeko eta asanbladan elkartzeko, langile gehienek ez baitute elkar ezagutzen. kontaktu bat edo birekin hasi, eta sindikatuko militanteek dei andana egin behar izan dituzte prozesu bakoitzean asanblada edo batzar bat egiteko. Horrek sinplea ematen du, baina ordu askotako lana da. Bakarrik dauden langileak dira, isolatuta, askotan egoera zaurgarrian, lan baldintza txarrekin, eta ez dute euren eskubideen inguruko inongo erreferentziarik.

Asanbladaren gakoa da langileek banaka hitz egin eta ulertzea arazo indibidualez gain kolektiboez ari garela. Ezaugarri horiek dituen batzar bat lortzeko, asanblada ordu eta egun ugari egin behar dira.

4.2. Langileak antolatu eta motibazioa landu

Taldean biltzea lortu ostean, hauteskunde sindikalak egin eta sindikatuari afiliatzeko lanketa egiten du ELAk. Hori negoziazio kolektiboarekin lotzen du sindikatuak, alegia, lan hitzarmen hobea lortzeko alternatibarekin.

Horretarako ezinbestekoa izan da beste herrietan lortutakoa langileekin partekatzea, eta eurek ere lor dezaketela erakustea. Motibazio handiena hori izan da langileentzat, alboko herrian lortutakoa. Hondarribiakoek, esaterako, Irungo langileek lortutakoa jakin zutenean, eurek ere nahi zituzten baldintza horiek. Beasaingoek Ordizian lortutakoa, edota Oriokoek Zarauzkoa. Domino efektua sortzen da.

Hitzarmen ona lortzeko, ezinbestekoa da langileak sindikatuari afiliatzea eta antolatzea. Enpresa indartsu bati irabazteko, estrategia bat behar da, baita baliabideak ere, eta horretarako beharrezkoa da ELA. Zerbitzu juridikoa edo bestelako zerbitzuak garrantzitsuak dira, baina baita trebakuntza eta grebarako gaitasuna emango dieten baliabideak ere. Horregatik da hain garrantzitsua erresistentzia kutxa.

Hauteskunde sindikalen bidez langileen ordezkariak aukeratzen dira, eta horiek paper garrantzitsua jokatzen dute antolaketan eta botere-tzerakoan. Asko, eta batez ere greba prozesuen ondorioz, sindikatuko militante bilakatzen dira. Izugarrizko lana egiten dute beste herrietako langileei, lehen pertsonan, beraien esperientzia kontatzen. Ordezkari sindikalen artean batzarrak egiten dira horregatik, eta horri esker sor-tzen dira sareak.

4.3. Negoziazio kolektiboa prestatu, greba ahalmena eraiki

Lehenik, ELAk lan baldintzen diagnostikoa egiten du, eta ondoren, al-darrikapenak zentratu. Zaila da hori, langileek normalizatuta dutelako euren egoera prekariora. Horregatik, lan handia da langileen egoeraren diagnostikoa egitea eta aldarrikapenak aukeratzea. Prozesua bera bihur-tzen da formakuntza eta ideologizazio prozesu bat.

Hasieran, langileek galdetzen dute nominetaz edo lan ordutegiekin di-tuzten arazoez. Norbanako arazo horiek perspektiban jarri eta ohartarazi behar zaie auzi kolektiboa dela euren; hau da, dituzten arazoak kolekti-boak direla. Horretaz jabetzea garrantzitsua da, konturatu behar direlako konponbidea ere taldean antolatuta lortuko dutela.

Negoiazio kolektiboari dagokionez, trebakuntza prozesua batez ere hitzarmenaren inguruan izaten da, eta horrek esan nahi du hitzarmena hartu eta artikuluz artikuluz zein eskubide dituzten aztertu behar dela. Era berean, hitzarmen berria egiteko erabaki behar da zer eskatuko den, zer zuzendu edo gehitu.

Horrekin batera, ideologizazioa ere lantzen da, ezinbestekoa dena bo-teretze prozesuan. Bereziki, genero ikuspegia eta interpelazio politikoa lantzen ditu ELAk. Sufritzen duten diskriminazioaren jatorria azter-tu, kuestionatu eta eztabaidatzean datza hori. Izan ere, langile horien kontzientzia praktika eta lanketa kolektiboarekin lortzen dela ikusi du sindikatuak. Hasieran euren burua feministatzat ez duten emakumeek, megafonoa eskuan “Gora borroka feminista!” oihukatzen bukatzen dute greban.

4.4. Greba luzeagoak

Greba ahalmena lortuta, hitzarmena negoziatzeko hasi eta antolatu behar dira greba eta mobilizazioak. Kasu horietan, ELAk ikusi du emakumeek egindako grebak gizonenak baino luzeagoak direla.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin gertatu bezala, feminizatutako sektore asko administrazioek pribatizatutako zerbitzu publikoak dira. Sektore horietan greba deialdia egiterakoan, gutxieneko zerbitzu handiak ezartzen ditu Eusko Jaurlaritzak. Esaterako, erresidentzietan erizain laguntzaileen gutxieneko zerbitzuak %70-90 bitartekoak dira, eta etxez etxeko laguntzaren kasuan, egoiliarren dependentzia mailaren arabekoa da. Ondorioz, greban egin nahi izan arren, langile askok lan egin behar izaten dute. Hau da, greba eskubidea oso mugatua dute; horretan ere arrakala dago gizonekiko.

Egoera horren aurrean, sindikatuak birpentsatu behar izan du mobilizazioen errepertorioa, grebaren eraginkortasuna handitzeko moduak, enpresak eta udalak interpelatzeko bideak...

Hori dela eta, ELA konturatu da ezinbestekoa dela herrietako eragile sozialekin elkarlana: talde feministekin, pentsionistekin, senideekin... Interes komunak ditu sindikatuak talde horiekin, eta elkar elikatuz, garrantzitsua da herrietan gatazkaren sozializazioa egitea.

Azkenik, halako borroketan garrantzitsua da garaipenak ospatzea. Taldea kohesionatuta mantentzen laguntzen du, eta zailtasunak edo oztopoak gainditzeko erraztu. Garaipen horiekin langileek ikusten dute gai direla gauzak eraldatzeko. Ezer eman nahi ez duen multinazional bat eskatzen duzuna ematera behartzen denean, langileak jabetzen dira kolektiboki duten botereaz.

5. ASKO DAGO EGITEKO

Sektore honetan, zaintza sektore osoan bezala, asko dago egiteko. Genero arrakala eta prekaritateak hor jarraitzen dute. Horregatik, ELAk jarraitzen du esparru berriak zabaltzen eta herri gehiagotara heltzen. Zaintza erdigunera ekarri behar da, beste zaintza eredu bat lortzeko.

Zentzu horretan, 2023ko azaroaren 30ean Hego Euskal Herrian lehen greba orokor feminista egin zen, talde feministek eta Euskal Herriko gehiengo sindikalak deituta, besteak beste. Bestelako zaintza eredu bat aldarrikatu zen: zaintza profesionalei dagokionez, zaintza publiko, unibertsal, doako eta kalitatezkoa.

Bide horretan, ELAren hurrengo urratsa da etxez etxeko zerbitzua publikoa izatea. Horren lanketan ari gara, bai langileekin, bai udalekin. 2025ean, Errenteriako zerbitzua udal langileen baldintzetara ekiparatzea lortu da. Hori da publikakazioaren bidean eman beharreko urrats garraztsua. Hala ere, ez da erraza izango, indar politikoak ez daudelako norabide horretan.

Horregatik, ELAk, zerbitzuaren lan hitzarmena hobetzeaz gain eta klase sindikatua den heinean, nahi du zerbitzuari buruzko hausnarketa eta bestelako gizarte eredu bat ere bultzatu. Horri lotuta doa ELAren fiskalitateari buruzko proposamena, adibidez, bestelako zaintza sistema bat lortzeko bideak proposatzen dituelako.

6. ONDORIOAK:

Praktika sindikal feminista horiek behetik gora eraikitako boteretze prozesuak izaten ari dira. Hau da, langile emakumeak indibidualki eta kolektiboki ahalduntzeko prozesuak dira. Langile eta emakume gisa, “errespetua” lortu dute enpresaren eta udal gobernuen aldetik; hori da gehien baloratzen dutena, garaipenik nagusiena, beraien ustez. Eta hori oso garrantzitsua da ELArentzat.

Horregatik, ELAk uste du sindikalismotik feminismoari egin diezaiokeen ekarpenik onena eta berezkoena halako praktika sindikalak direla. Alegia, emakume langileak batu, antolatzen lagundu, motibatu, tresnak eman eta borrokarako gaitasuna bermatzea.

ERANSKINA.**ELAK ORDEZKARITZA DUEN ERAMUETAN URTEOTAN
LORTUTAKO AKORDIOAK, UNE HORRETAN ZEUDEN
ENPRESEKIN**

Andoain	Eulen
Aretxabaleta	Gizadi
Beasain	Matia-Goxara
Bergara	Eulen
Donostia	Aztertzen
Eibar	Serveo
Errenteria	Arquisocial
Eskoriatza	Gizadi
Hondarribia	Zaintzen-Clece
Idiazabal	Laugara
Irun	Gizatzen
Lazkao	Eulen
Legazpi	Aralia
Oñati	Matia-Goxara
Ordizia	Eulen
Orio	Eulen
Pasaia	Matia-Goxara
Tolosa	Matia-Goxara
Urnietia	Eulen
Usurbil	Arreta Zerbitzuak
Villabona	Matia-Goxara
Zarautz	Eulen
Zumaia	Eulen
Azkoitia	Arreta Zerbitzuak

ELAk bultzatu eta sindikatuaren gutxieneko irizpideak betetzen dituzten hogeit hitzarmen baino gehiago lortu dira, besteak beste, honako hobeakuntzekin: langileen subrogazioa, KPI gorako soldata igoerak, lanaldi murrizketa eta 35 orduko asteko lanaldia, gutxieneko lanaldiak bermatuta eta lanaldi partzialak murriztuta, lanorduak modu egokian banatzeko ordu-poltsak egokituta, hitzarmenak aldebakarrez ez bete-tzeak eragotzita...

Sinaturiko hitzarmen horietatik hamar lehen hitzarmenak dira, hau da, aurrez hitzarmen propiorik ez eta estatuko hitzarmenaren edo enpresaren baitako baldintzak ezartzen zitzaizkien langileei.

Akordio horietara iristeko hamasei kasutan mobilizazioak egin behar izan dira, hamarretan greba deitu eta bederatzietan greba egin.

Lorpen horiek bultzatuta, beste hainbat herrietan lehen hitzarmena negoziatzeko prozesuak irekita daude.